

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Espainiako Historia USE 2020

www.ehu.es



ESPAINIAKO HISTORIA

HISTORIA DE ESPAÑA

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Proba idatzi honek 4 ariketa ditu. Ariketak bi multzotan banatuta daude:

A Multzoa: bi gai ditu, 1 erantzun behar duzu.

B Multzoa: bi testu-iruzkina ditu, 1 erantzun behar duzu

Zuzenketa eta kalifikazio irizpide espezifikoak:

1. Gaia: 5 puntu. Gaiaren kalifikazioa irizpide hauen arabera egingo da:
 - a. Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna: 1 p.
 - b. Kontzeptu eta hiztegi espezifikoak ondo erabiltzea: 1 p.
 - c. Gaia bere testuinguruan jartzea: 3 p.
2. Testu iruzkina: 5 puntu. Testuaren kalifikazioa irizpide hauen arabera egingo da:
 - a. Testuaren kokapena (testu mota, egile, jasotzaileak, garaia): 0,5 p.
 - b. Testuaren analisia: testuaren oinarriko ideiak nabarmentzea: 1,5 p.
 - c. Testuinguruan jartzea: testua bere prozesu historikoan ezartzea: 2,5 p.
 - d. Testuaren garrantzia: kokatzen den aldi historikoa ulertzeko, testu horrek duen garrantzia adieraztea: 0,5 p.

Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen

Esta prueba escrita se compone de 4 ejercicios. Los ejercicios están distribuidos en dos bloques:

Bloque A: consta de dos temas, debes responder a 1 de ellos.

Bloque B: consta de dos comentarios de texto, debes responder 1 de ellos.

Criterios específicos de corrección y calificación:

1. Tema: 5 puntos. La calificación del tema se ajustará a los siguientes criterios:
 - a. Capacidad para ajustarse a lo que se pregunta: 1 p.
 - b. Uso adecuado de los conceptos y vocabulario específico: 1 p.
 - c. Contextualización del tema: 3 p.
2. Comentario de texto: 5 puntos. La calificación del texto se ajustará a los siguientes criterios:
 - a. Localización del texto (tipo de texto, autor, destinatarios, época): 0,5 p.
 - b. Análisis del texto: resalta las ideas fundamentales del texto: 1,5 p.
 - c. Contextualización: encuadra el texto en su proceso histórico: 2,5 p.
 - d. Importancia del texto: destaca su importancia para comprender el período histórico en el que está inscrito: 0,5 p.

En caso de responder a más preguntas de las estipuladas, las respuestas se corregirán en orden hasta llegar al número necesario.



ESPAINIAKO HISTORIA

HISTORIA DE ESPAÑA

A MULTZOA: Gaiak

(Garatu gai hauetako BAT)

A1. GAIA: FORUAK ETA LIBERALISMOA: KARLISTADAK ETA FORUAK INDARGABETZEKO PROZESUA (1833-1876): 1. Lehenengo Karlistaldia. 2. Foru sistema Estatu liberalean txertatzea eta foruzaletasuna. 3. Azken gerra karlista eta foru-indargabetzea.

A2. GAIA: ESTATU FRANKISTAREN SORRERA (1939-1959): 1. Francoren Erregimenaren oinarri ideologiko, politiko eta sozialak. 2. Erbestean zegoen oposizioa eta barruko erresistentzia. 3. Autarkia ekonomikoa. 4. Nazioarteko politika.

BLOQUE A: Temas

(Desarrolla UNO de estos temas)

TEMA A1: FUEROS Y LIBERALISMO: LAS GUERRAS CARLISTAS Y LA CUESTIÓN FORAL (1833-1876): 1. La primera guerra carlista. 2. La inserción del régimen foral en el Estado liberal y el fuerismo. 3. La última guerra carlista y la abolición foral.

TEMA A2: LA CREACIÓN DEL ESTADO FRANQUISTA (1939-1959): 1. Fundamentos ideológicos, políticos y sociales del Régimen de Franco. 2. La oposición del exilio y la resistencia del interior. 3. La autarquía económica. 4. La política internacional.



ESPAINIAKO HISTORIA

HISTORIA DE ESPAÑA

B MULTZOA: Testu-iruzkina

(Egin testu hauetako BATen iruzkina)

**B1. TESTU-IRUZKINA: FEDERICO ECHEVARRIAREN HITZALDIA
LIBREKANBISMOARI ETA PROTEKZIONISMOARI BURUZ (1893-12-09)**

Ez, hemen gertatzen den gauza bakarra zera da, Espainiaren eta Alemaniaren arteko itun tamalgarriaren ondorioz, proiektua atzera botako dela, eta deseginik geldituko dela egungo aduana-zergen araubidea ezartzeko egindako lan handia. Eta jokabide horrek zoritxar handia ekarriko dio herrialdeari, dudarik gabe; ez bakarrik aurrekari zorigaitzoko bat ezarriko duelako, etorkizuneko zeinahi industria-ekimen hondatuko lukeena, baizik eta, orobat, zauri hilgarria eragingo liekeelako lantegiei; bai egungo muga-zergen araubidearen babesean altxatu direnei, halakoak baitira gehien-gehienak, bai lehendik altxatuak zirenetan egin diren erreforma eta zabaltze handiei. Eta industria-jarduera horren guztiaren heriotzak, ohar gaitezen, hauek guztiak harrapatuko lituzke: Labe Garaiak, galdaragintzako eta makinak egiteko instalazio berrietan: altzairu-ekoizpena; Talleres de Deusto, altzairu moldekatuak eta trakzio-makinak eta -materiala egiteko sailean; Aurrera, haren hodi-fundizio ezin garrantzitsuagoetan, altzairuzko manufacturretan; Talleres de Zorroza eta Talleres de Miraballes, zubigintzan, bagoigintzan, eraikingintzan eta galdaragintzan (...) eta beste asko eta asko, luze joko bailiguke orain denak aipatzeak. Ez aipatzeagatik, jaun-andreok, berebiziko garrantzia duten fabrika-proiektuak —izenik ezin dut eman—, 1892ko aduana-zergak jarraitzearen baitan baitago haiek gauzatzea edo ez.

Hain ondorio lazarriak saihesteko, hainbesteko hondamena saihesteko, Bizkaia ez ezik Espainiako beste eskualde oso garrantzitsu batzuk ere hartuko bailituzke eta eragina izango bailuke nazio osoan, tinko eskatu behar diogu Gobernuari ez dadila urrundu araubidetik, ez dezala suntsi halako modu zalapartatsu eta gupidagabeen gaur egungo babes-sistema, eta, beraz, bazterrera utz dezala espainiar-alemaniar itun zentzugabe hori.

Merkataritza Itunen kontrako mitin-protesta, Bilbon, 1893ko abenduaren 9an. Bilbon, 1894.



ESPAINIAKO HISTORIA

HISTORIA DE ESPAÑA

B2. TESTU-IRUZKINA: CLARA CAMPOAMOR DIPUTATUAK GORTE KONSTITUZIOGILEETAN EMANDAKO HITZALDIA (1931-09-01)

Utz iezaiozue emakumeari den bezalako agertzen, hura ezagutu eta epaitzeko; errespetatu ezazue gizaki izateagatik duen eskubidea; (...) eta baldin eskubide konstituziogilea, herri zibilizatuen arau juridiko gisa, gero eta hurbilago badago askatasunaren kontzeptutik, ez iezaguzue arrazoitzat aipa izaki desberdinen arteko desberdintasunaren printzipio aristoteliko zaharkitua (...). Utz iezaiozue emakumeari Zuzenbidean aritzen, hasieran hanka-sartzeak eta zalantzak izanda ere, horrela bakarrik heziko baita hartan.

(...) Konstituzio honen garaia eta espirtua kontuan hartuta, oso poztu nau pentsatzeak mundu zibilizatuko orain arteko konstituziorik onena, libreena eta aurreratuena izango dela. Eta pentsatu dut, halaber, Errepublikari ezarri eta hamabost egunera behin-behineko Gobernuaren dekretuak monarkiako hogeitaz mende aitortu ez ziotena aitortuko diola emakumeari. Uste dut hau izango dela emakumearen [sufragio] eskubidea onartuko duen lehen latindar herrialdea; lehen aldiz entzungo da latindar ganbera batean emakumearen ahotsa, emakumea bera bezain xumea, baina egiaren haizeak ekarri nahi dizkiguna; eta harro-harro sentitzen naiz, nire Espainia izango baita emakumearen askatasunaren bandera jasoko duen herrialdea (...). Eta honela diotsuet, legegile jaunak: (...) ez ezazue onar beste latindar nazio batek, datozen egunetan, guk baino lehenago ezartzea bere Konstituzioaren buruan emakumearen askatasuna, zuen kidearen askatasuna.

Diario de Sesiones de las Cortes Constituyentes de la República Española, 1931ko irailaren 1eko saioa.



Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioan testu historikoen iruzkina egiteko eskema

A. Testuaren kokapena eta sailkapena (0,5 puntu)

Testu mota: juridikoa (konstituzioak, legeak, dekretuak, erregelamenduak), narratiboak (manifestuak, proklamak, diskurtsoak, txostenak), kazetaritzakoak (prentsa artikulua), gutunak, literatur lanak (memoriak, nobelak), historiografikoak (historialarien lanak).

Egilea: indibiduala edo kolektiboa; eman azalpen labur bat.

Hartzailea: indibiduala edo kolektiboa; eman azalpen labur bat.

Une historikoa: kokatu testua dagokion Aro Garaikideko etapan.

B. Testuaren analisia (1,5 puntu)

Azaldu testuaren edukia, kontuan harturik zer dioten: pertsonak, erakundeak, gertaerak, datak, lekuak

Nabarmendu testuaren oinarritzko ideiak, aintzat harturik hurrenkera literala (paragrafoen arabera edo, testu juridikoen kasuan, artikuluen arabera) edo logikoa, elkarri lotutako ideiak taldekatuz.

Helburua da edukia azaltzea edo interpretatzea, eta testuan agertzen dena beste hitz batzuekin ez errepikatzea.

C. Testuinguruan kokatzea (2,5 puntu)

Atal garrantzitsuena da. Helburua da testua prozesu historikoan kokatzea, bere testuinguru historikoan, haren garrantzia ulertzeko, denbora horri buruzko ezagutzak aplikatuz testuari lotuta. Horrek ez du aitzakia izan behar gai bat garatzeko testutik deskonektatuta.

Testuinguruan koka daiteke bereiziz aurrekariak, gertaeren garapena eta haien ondorioak, edo bereiziz faktore koiunturalak (berehalakoak) eta egiturazkoak (sakonak).

Testuaren arabera, **atal hau oinarritu daiteke denbora labur edo koiuntura** batean (Independentzia Gerra, II. Errepublika, Trantsizioa) edo zenbait hamarralditako **denbora ertain** batean (Estatu liberala, Errestaurazioa, Diktadura frankista).

D. Testuaren garrantzia (0,5 puntu)

Nabarmendu testuak bere garai historikoa ulertzeko duen garrantzia edo interesa. Testuaren balorazio kritikoa egin daiteke: haren objektibitatea, betetze maila



ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

Bibliografía gomendatua

- Egado León, Ángeles (koord.): *La historia contemporánea en la práctica. (Textos escritos y orales, mapas, imágenes y gráficos comentados)*. Editorial Centro de Estudios Ramón Areces, Madril, 1996, 13-20 eta 205-234. orrialdeak bereziki.
- Moradiellos, Enrique: *El oficio de historiador. Estudiar, enseñar, investigar*. Akal, Madril, 2013, 209-234. orrialdeak bereziki.

2020